# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 3976

*AGINDUA, 2022ko irailaren 8koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegu publikoa finkatzeko prozesu bereziak eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuak.*

Gobernu Kontseiluaren 2018ko abenduaren 18ko, 2019ko abenduaren 17ko, 2021eko abenduaren 21eko eta 2022ko maiatzaren 24ko erabakien bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako karrerako funtzionarioen 2018., 2019., 2021. eta 2022. urteetarako enplegu publikoaren eskaintzak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu dira, eta 1.2 oinarrian dago xedatuta ezen hautaketa-prozesu bakoitzaren berezitasunak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen bidez arautuko direla eta, halaber, zehaztuta dago zer eduki izan behar duten oinarriok, hau hain zuzen: zenbat plazatarako deialdia egingo den, nola banatuko diren hizkuntza-eskakizunen, sarbide-modalitatearen eta, hala badagokio, txanden arabera, zer epetan aurkeztu ahal izango diren eskabideak, zenbatekoa izango den inskribatze-tasa langileak hautatzeko deialdietan, zer titulu beharko den sartzeko, zer merezimendu baloratuko diren eta zer baremo baliatuko den, zer data izango den erreferentzia euskara-ezagutzak egiaztatzeko, zer betekizun espezifiko izango duten deialdiko lanpostuek, zein izango diren gai espezifikoak enplegua finkatzeko prozesu berezietan, eta ea emakumeen lehentasunaren klausula aplikatuko den ala ez.

Agindu honen bidez, enplegua finkatzeko prozesu berezietarako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako deialdia egin eta oinarri espezifikoak onartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako zenbait kidego eta eskalatarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo eta bigarren xedapen gehigarrietan ezarritakoaren arabera, aintzat hartuta Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien 2021eko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoa eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II. tituluko IV. kapituluan langileen hautaketaz xedatutakoa, eta bat etorriz lege horrek 6.1.i) artikuluan emandako eskudantziekin eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 2021eko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.3.f) artikuluan ezarritakoarekin, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Deialdia egitea enplegua finkatzeko prozesu berezietarako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetarako, kidego eta eskala hauetan, plaza kopurua eta horietako bakoitzari dagokion eranskina adierazita.

| Kidegoa/Eskala | Prozesu-mota | Lanpostuak, guztira | Eranskina |
|---|---|---|---|
| Administrazioko Goi-mailako Kidegoa. Administrazioko Eskala | Finkatzeko berezia | 105 | I.a |
| Administrazioko Goi-mailako Kidegoa. Administrazioko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 130 | II.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskala | Finkatzeko berezia | 2 | III.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 29 | IV.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Estatistikako eta Datu Analisietako Eskala | Finkatzeko berezia | 15 | V.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Estatistikako eta Datu Analisietako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 48 | VI.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Hizkuntza Normalizazioko Eskala | Finkatzeko berezia | 18 | VII.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Hizkuntza Normalizazioko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 45 | VIII.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Itzulpengintzako Eskala | Finkatzeko berezia | 2 | IX.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Itzulpengintzako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 29 | X.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Ekonomia eta Enpresako Eskala | Finkatzeko berezia | 18 | XI.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Ekonomia eta Enpresako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 58 | XII.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Eskala Juridikoa | Finkatzeko berezia | 82 | XIII.a |
| Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa. Eskala Juridikoa | Finkatzeko salbuespenezkoa | 198 | XIV.a |
| Administrazio Kudeaketako Kidegoa. Administrazio Kudeaketako Eskala | Finkatzeko berezia | 47 | XV.a |
| Administrazio Kudeaketako Kidegoa. Administrazio Kudeaketako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 65 | XVI.a |
| Kidego Teknikoa. Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskala | Finkatzeko berezia | 9 | XVII.a |
| Kidego Teknikoa. Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 30 | XVIII.a |
| Kidego Teknikoa. Hizkuntza Normalizazioko Eskala | Finkatzeko berezia | 5 | XIX.a |
| Kidego Teknikoa. Hizkuntza Normalizazioko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 9 | XX.a |
| Kidego Teknikoa. Estatistikako Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 4 | XXI.a |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala | Finkatzeko berezia | 5 | XXII.a |
| Laguntzaile Teknikoen Kidegoa. Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala | Finkatzeko salbuespenezkoa | 4 | XXIII.a |

Agindu honen bidez egiten den deialdiko hautaketa-prozesuak Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren arabera egingo dira, haren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Bigarren artikulua.– Onartzea agindu honen I.tik XXIII.era bitarteko eranskinetan adierazitako oinarri espezifikoak.

Hirugarren artikulua.– Epe hau ezartzea eskabideak aurkezteko: 2022ko irailaren 14tik 2022ko urriaren 13ko 14:00etara.

Laugarren artikulua.– Ezartzea euskara-ezagutzek 2023ko otsailaren 1a baino lehenago egon behar dutela egiaztatuta.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, betiere bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 8a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.

# I. ERANSKINA

Deialdiaren oinarri espezifikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezirako

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalako 105 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a) Sarbide orokorraren modalitatea: 100

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 10

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 77

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 12

3. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 1

b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 5

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 5

6.d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Administrazioko Goi-mailako Kidegoko langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalan sartzeko tituluak:

Ikasketa-eremu guztietako gradu-, lizentzia-, ingeniaritza- edo arkitektura-tituluak.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak lanpostua betetzeko betekizun izan daitezke. Euskara jakitea nahitaezko betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, hiru espezialitateetan: segurtasuna, higienea eta ergonomia eta psikosoziologia.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– B1 mailako ingelesa edo frantsesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– B1 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– Unibertsitate edo administrazio publiko batek egiaztatutako graduondokoa, gutxienez 250 ordukoa, web-edukien kudeaketarekin eta interneteko marketin/komunikazioarekin lotutako gaietan.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren espezialitatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren kidego berezien eskalen funtzioak ezarri, espezialitateak arautu eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea sortzen duen 2022ko maiatzaren 3ko 57/2022 Dekretuaren xedapen gehigarriaren arabera espezialitate hori ofizioz aitortu zaien hautagaiek merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar dute.

Gainerako hautagaiek oinarri espezifiko hauen 6. apartatuan xedatutakoaren arabera egiaztatu ahal izango dute.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia– hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, 120 puntu lor daitezke gehienez.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, 80 puntu lor daitezke gehienez, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1.– Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Administrazioko Goi-mailako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,083 puntu emango dira, gehienez ere 22 puntu izan arte.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lanean emandako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.– Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1.– Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Administrazioko Goi-mailako Kidegoko izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,151 puntu emango dira, gehienez ere 40 puntu izan arte.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lanean emandako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2.– Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Administrazioko Goi-mailako Kidegoko izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabeteko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2 apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (12 puntu lor daitezke gehienez):

b.1.– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma), gehienez 10 puntu izan arte:

031201 Politika eta kudeaketa publikoa.

041303 Kudeaketa eta administrazio publikoa.

031202 Nazioarteko harremanak.

041301 Administrazioa eta enpresa.

031101 Ekonomia.

041201 Finantza eta aktuariotza.

041202 Finantzak eta kontabilitatea.

042101 Zuzenbidea.

011101 Pedagogia.

031301 Psikologia.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gainditituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3.– 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu bat ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea egiaztatzea.

6.1.– Espezialitate hori ofizioz aitortuta dute espezialitateari atxikitako lanpostuak gutxienez bost urtez bete dituzten karrerako funtzionarioek edo bitartekoek, betiere urte horiek 2022ko maiatzaren 3ko 57/2022 Dekretua indarrean jarri aurretikoak badira (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren kidego berezien eskalen funtzioak ezarri, espezialitateak arautu eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea sortzen duen 57/2022 Dekretuaren xedapen gehigarria).

6.2.– Era berean, proba espezifiko bat gaindituz egiaztatu ahal izango dute hautagaiek espezialitate hori, lehen aipatutako dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera. Proba horren ezaugarriak hurrengo apartatuetan zehaztuko dira.

6.3.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Eusko Jaurlaritzaren espezialitatea egiaztatzeko proba espezifikoan parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epean, berdintasunaren arloko ikastaro bat gainditu dutela alegatu beharko dute, unibertsitate edo administrazio publiko batek emandakoa eta gutxienez 150 ordu iraun duena. Alegazioari, egiaztagiriaren kopia arrunta erantsi beharko zaio. Prestakuntza-orduek ikastaro bakarrarenak izan behar dute; ezin dira metatu 150 ordu baino gutxiago irauten duten alor horretako prestakuntza-jarduerak.

6.4.– Oinarri orokor hauetako 10.ean aipatzen den onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendarekin batera, espezialitate hau egiaztatzeko proba egiteko onartutakoen behin-behineko zerrenda ere argitaratuko da.

10 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetako akatsak zuzentzeko, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota eta horiek ebatzita, IVAPeko Zuzendaritzak ebazpen bat emango du, proba egiteko onartukotakoen zerrenda jakinarazteko eta proba zein egunetan egingo den aditzera emateko.

6.5.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Eusko Jaurlaritzaren espezialitatea eskuratzeko probak ezaugarri hauek izango ditu:

a) 40 galderako galdera-sorta bat izango da, aukeran erantzun bat baino gehiago dituztenak, deialdi honen 8. oinarriko gai-zerrendari buruzkoak.

b) Proba «gai» edo «ez-gai» gisa kalifikatuko da eta, «gai» kalifikazioa lortzeko, beharrezkoa izango da oposizio-fasea gainditua izatea eta proba honetako 40 puntuetatik gutxienez 20 lortzea.

c) Erantzun oker bakoitzeko, erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da.

7.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Konstituzioa: Egitura eta edukia. Oinarrizko eskubideak eta eginbeharrak. Estatuaren lurralde-antolamendua: Alderdi orokorrak. Autonomia-erkidegoak: antolamendua eta eskumenak. Autonomia-estatutuak.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko antolaketa politiko eta administratiboa. Printzipio orokorrak. Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen-banaketaren alderdi orokorrak. Eusko Legebiltzarra. Eusko Jaurlaritza eta lehendakaria.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta lurralde historikoen arteko eskumen-banaketaren alderdi orokorrak. Ekonomia Ituna. Toki-erakundeen eskumenak.

4.– Europar Batasuneko Zuzenbidea. Erakundeen azalpen laburra: Kontseilu Europarra, Europar Batasuneko Kontseilua, Batzordea, Parlamentua eta Auzitegia. Egintza juridikoak: erregelamenduak eta zuzentarauak.

5.– Administrazio-zuzenbidearen iturriak: legea eta erregelamendua. Arau-hierarkia. Administrazio publikoaren legezkotasun-printzipioa. Administrazio Publikoaren autotutoretza.

6.– Administrazio-antolamendua: administrazio-organoak. Kide anitzeko organoak. Eskumena. Eskumenak eskuordetzan ematea eta sinadura eskuordetzan ematea. Goragokoak eskumena bereganatzea.

7.– Kudeaketa-gomendioa. Administrazioen arteko hitzarmenak.

8.– Herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. Artxibo eta erregistro publikoetara irispidea izateko eskubidea.

9.– Administrazio-egintza: ematea, edukia, arrazoitzea eta forma. Administrazio-egintzaren efikazia. Administrazio-egintza jakinaraztea eta argitaratzea; administrazio-isiltasuna. Administrazio-egintzaren deuseztasuna eta deusezgarritasuna. Administrazio-egintzen betearazpena.

10.– Administrazio-prozedura: Printzipio orokorrak; interesdunak; abstentzioa eta errekusazioa; administrazio-prozeduraren faseak; epe-mugak eta epeak; interesdunen eskubideak administrazio-prozeduran.

11.– Administrazio-egintzak berrikustea: administrazio-errekurtsoak, ofiziozko berrikuspena eta errebokatzea. Akats materialak eta egitezkoak zuzentzea.

12.– Administrazio publikoaren ondare-erantzukizuna: Administrazio publikoen eta haien agintarien eta langileen ondare-erantzukizunari buruzko printzipioak eta hura exijitzeko prozedura.

13.– Administrazio elektronikoa: Herritarrek zerbitzu publikoetara duten sarbide elektronikoa. Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa: egoitza elektronikoa eta Interneteko ataria,

identifikazio-sistemak eta sinadura elektronikoa. Ziurtagiri elektronikoa. Artxibo elektronikoa. Administrazio-espediente elektronikoa.

14.– Administrazio-dokumentuak. Dokumentuen kopiak eta ziurtagiriak ematea. Sinadurak legeztatzea. Balidazioa administrazio elektronikoan. Identifikazioa eta sinadura elektronikoa. Ziurtagiri elektronikoa.

15.– Zerbitzu publikoa. Zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak, batez ere zuzeneko kudeaketa eta emakida.

16.– Sektore publikoko kontratuak: Kontratu-motak. Erregulazio harmonizatua. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak. Kontratuaren edukia eta kontratua burutzea. Kontratuaren baliogabetasuna. Kontratazio-alorreko errekurtso berezia. Kontratua prestatzea eta esleitzea. Kontratuen ondorioak, betetzea eta azkentzea.

17.– Administrazio-baimenak eta -lizentziak. Zehatzeko ahala: printzipioak eta prozedura.

18.– Euskararen erabileraren normalizazioa. Herritarren hizkuntza-eskubideak; administrazio-prozeduretako hizkuntza; hizkuntza-eskakizuna eta haren egiaztapena; derrigortasun-data. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak.

19.– EAEko administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak. Enplegatu publiko motak. Funtzio Publikoaren egitura eta antolaketa. Lanpostuen hautaketa eta sustapena. EAEko administrazio publikoetako enplegatu publikoen eskubideak eta eginbeharrak. Bateraezintasunak. Ordainsariak. Administrazio-egoerak. Diziplina-araubidea. Funtzionarioen negoziazio kolektiboa.

20.– Administrazio publikoen zerbitzuan diharduten langile lan-kontratudunak. Hautaketa. Eskubideak eta eginbeharrak. Lan-kontratua: edukia, iraupena, etetea eta azkentzea. Lan-kontratu motak.

21.– Gizarte Segurantza. Araubide orokorra. Afiliazioa eta kotizazioa. Babes-ekintza. Kontingentziak eta prestazioak.

22.– Lan-arriskuen prebentzioa. Helburua. Eskubideak eta betebeharrak: laneko arriskuetatik babesteko eskubidea. Prebentzio-jardueraren printzipioak. Prebentzio-plana, arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza. Langileen prestakuntza. Datuak bistaratzeko pantailak.

23.– Aurrekontua: Kontzeptua, izaera eta motak. Printzipio iradokitzaileak. Lege gisa izapidetzea. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontu-sistema. Euskal Autonomia Erkidegoko kontabilitate publikoa.

24.– Gastu publikoa: Kontzeptua eta motak. Gastu publikoaren ondorio ekonomikoak. Aurrekontua gauzatzea: egin beharreko eragiketak. Gastuen kudeaketa. Aurrekontuaren aldaketak. Aurrekontuaren likidazioa eta kontuak ematea. Aurrekontuaren kontrola. Kontabilitatea kontrolatzeko bitartekari gisa.

25.– Diru-sarrera publikoak: Kontzeptua eta motak. Euskal Autonomia Erkidegoaren diru-sarrerak. Tasak eta prezio publikoak eta pribatuak.

26.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-publikoaren laguntzen eta dirulaguntzen araubidea: Arau erregulatzaileak. Dirulaguntzak emateko eskumena. Dirulaguntzaren xedea eta definizioa. Betekizunak eta printzipio orokorrak. Onuradunak eta haien betebeharrak. Dirulaguntzak emateko prozedurak. Dirulaguntza eta laguntza publikoak itzultzea.

27.– Gobernu irekia: Kontzeptua eta printzipio informatzaileak. Gardentasuna: publizitate aktiboa eta informazio publikoa eskuratzea. Gobernu Ona. Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Publiko Aurreratuaren Eredua: Aurrerabide.

28.– Komunikazioa Administrazioan: Administrazio-hizkeraren erabilera zuzena. Idatzizko komunikazioa: Administrazio-hizkera ez-sexista. Idatzizko dokumentuen edukia eta aurkezpena. Ahozko komunikazioa: Komunikazioa eta arreta, aurrez aurre eta telefonoz. Irizpide orokorrak. Hitzik gabeko komunikazioa.

29.– Berdintasuna: Testuingurua eta aurrekariak. Xedea eta helburua. Printzipio orokorrak: Tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; aniztasuna eta diferentzia errespetatzea; genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua; eta lankidetza eta koordinazioa. Administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.

30.– Datu pertsonalak babestea: Kontzeptuak: datu pertsonala eta datu pertsonalen tratamendua. Datu pertsonalen kategoria bereziak. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan aplikatu beharreko araudia. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko printzipioak. Datu pertsonalen tratamenduaren legitimizazio-oinarriak. Tratamenduaren arduraduna eta tratamenduaren eragilea. Herritarren eskubideak, datu-babesari dagokionez. Erantzukizun proaktiboa.

31.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua: izaera, helburuak, eginkizunak, egitura eta antolamendua.

8.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Eusko Jaurlaritzaren espezialitatea egiaztatzeko gai-zerrenda.

1.– Sexua/generoa sistemaren eraikuntza eta horrek duen eragina norbere nortasuna eraikitzen eta gizartea antolatzen.

2.– Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria nagusiak esku-hartze publikoaren eremutan: kultura, hezkuntza, osasuna, lana, denboraren erabilerak, gizarteratzea, ingurumena eta partaidetza soziopolitikoa.

3.– Emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia duala: ekintza positiboa eta genero-mainstreaminga.

4.– Konstituzioko berdintasun-printzipioa eta sexuagatik diskriminaziorik ez jasateko oinarrizko eskubidea. Diskriminazio-motak: zuzena eta zeharkakoa.

5.– Berdintasun-printzipioa nazioartean: Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Konbentzioaren eta Garapen jasangarrirako 2030 Agendaren elementu nagusiak.

6.– Berdintasun-printzipioak Europar Batasunean. Europar Batasunaren tratatuetako eta Genero Berdintasunerako 2022-2025 Estrategiako elementu nagusiak.

7.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko.

8.– 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako. Elementu nagusiak.

9.– «Emakunde» Emakumearen Euskal Erakundea. Xedeak, helburuak eta eginkizun nagusiak.

10.– Eusko Jaurlaritzako sailetan, organismo autonomoetan eta ente publikoetan berdintasun-politikak bultzatzeko eta koordinatzeko administrazio-unitateak: Ezaugarriak eta eginkizunak.

11.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea: Osaera eta eginkizunak.

12.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea. Osaera eta eginkizunak.

13.– Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana (VI. EGBP).

14.– Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken ebaluazioa.

15.– Generoaren araberako inpaktua aurretiaz ebaluatzea. Eusko Jaurlaritzaren gidalerroak.

16.– Hizkuntzaren garrantzia nortasun pertsonal eta sozialaren eraikuntzan. Sexismoa eta androzentrismoa hizkuntzaren erabileran. Erabilera zuzenerako alternatibak.

17.– Emakumeen ahalduntzea. Indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean aurreikusitako helburuak eta kontzeptu legala.

18.– Gizonen zeregina berdintasunaren eraikuntzan: Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planean aurreikusitako neurriak eta helburuak.

19.– Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordea: Osaera eta eginkizunak.

20.– Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lankidetza-erakundea.

21.– Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Batzordea: Begira.

22.– Emakumeen aurkako indarkeria: jatorria, kontzeptua, tipologia eta neurri nagusiak, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitakoaren arabera.

23.– Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa. Arreta-protokoloa eta Jarraipen Batzordea.

24.– 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa. Elementu nagusiak.

## II. ERANSKINA

Deialdiaren oinarri espezifikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesurako

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalako 130 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a) Sarbide orokorraren modalitatea: 124

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 17

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 90

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 17

b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 6

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 6

6.d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Administrazioko Goi-mailako Kidegoko langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalan sartzeko tituluak:

Ikasketa-eremu guztietako gradu-, lizentzia-, ingeniaritza- edo arkitektura-tituluak.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak lanpostua betetzeko betekizun izan daitezke. Euskara jakitea nahitaezko betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, hiru espezialitateetan: segurtasuna, higienea eta ergonomia eta psikosoziologia.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– B1 mailako ingelesa edo frantsesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– B1 mailako ingelesa.

Merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar da, 9.7 oinarri orokorrean ezarritako moduan.

– Unibertsitate edo administrazio publiko batek egiaztatutako graduondokoa, gutxienez 250 ordukoa, web-edukien kudeaketarekin eta interneteko marketin/komunikazioarekin lotutako gaietan.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikuluaren arabera.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren espezialitatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren kidego berezien eskalen funtzioak ezarri, espezialitateak arautu eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea sortzen duen 2022ko maiatzaren 3ko 57/2022 Dekretuaren xedapen gehigarriaren arabera espezialitate hori ofizioz aitortu zaien hautagaiek merezimenduak alegatzeko izapidean alegatu behar dute.

Era berean, Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezian espezialitate hau egiaztatzeko proban parte hartu eta «gai» kalifikazioa lortzen duten hautagaiei betekizun hau egiaztatutzat joko zaie hautaketa-prozesu honetarako ere.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia– hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

100 puntu lor daitezke gehienez (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko Administrazioko Goi-mailako kidego, eskala edo kategorian edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,056 puntu emango dira, gehienez ere 15 puntu izan arte.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lanean emandako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1.– Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Administrazioko Goi-mailako Kidegoko izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,170 puntu emango dira, gehienez ere 45 puntu izan arte.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lanean emandako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2.– Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalako izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Administrazioko Goi-mailako Kidegoko izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabeteko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2 apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (30 puntu lor daitezke gehienez):

c.1.– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua, lizentzia edo diploma), gehienez 20 puntu izan arte:

031201 Politika eta kudeaketa publikoa.

041303 Kudeaketa eta administrazio publikoa.

031202 Nazioarteko harremanak.

041301 Administrazioa eta enpresa.

031101 Ekonomia.

041201 Finantza eta aktuariotza.

041202 Finantzak eta kontabilitatea.

042101 Zuzenbidea.

011101 Pedagogia.

031301 Psikologia.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3.– 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalako lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

## III. ERANSKINA

Deialdiaren oinarri espezifikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezirako

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskalako 2 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

Sarbide orokorraren modalitatea: 2

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

6.d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.3.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eraikingintza, Hirigintza eta Lurralde-antolamenduko Eskalan sartzeko tituluak:

Arkitekturako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua.

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak lanpostua betetzeko betekizun izan daitezke. Euskara jakitea nahitaezko betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Dagokion elkargo profesionaleko kide izatea. Betekizun hau lanpostuaz jabetzeko unean egiaztatu beharko da, 9.1 oinarri orokorrean xedatutakoaren arabera.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia– hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, 120 puntu lor daitezke gehienez.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, 80 puntu lor daitezke gehienez, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3.– 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ekonomia eta Enpresako Eskalako lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Ekonomia eta Enpresako Eskalan, eta ez zaie lehentasunik emango.

## XIII. ERANSKINA

Deialdiaren oinarri espezifikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoan enplegua finkatzeko prozesu berezirako

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoko 82 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a) Sarbide orokorraren modalitatea: 78

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 16

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 33

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 27

4. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 2

b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 4

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6.d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoan sartzeko tituluak:

Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak: Zuzenbidea.

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak 2022ko maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda (maiatzaren 23ko EHAAn argitaratua).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak lanpostua betetzeko betekizun izan daitezke. Euskara jakitea nahitaezko betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, hiru espezialitateetan: segurtasuna, higienea eta ergonomia eta psikosoziologia.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko 2016ko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, deialdi honen ondorioetarako, egiaztatutzat joko dira, Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko edo A-2ko Zuzenbideko lizentziadunen aukerako bitarteko funtzionarioak, baldin eta lege hori indarrean jartzean (2016ko ekainaren 8an) bost urteko antzinatasuna bazuten.

Gainerako hautagaiek oinarri espezifiko hauen 6. apartatuan xedatutakoaren arabera egiaztatu ahal izango dute.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia– hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema oposizio-lehiaketa izango da.

4.1.– Oposizio-fasea.

Oposizio-fasearen diseinua eta garapena oinarri orokorren 23. apartatuan jasotzen da.

Oposizio-fasean, 120 puntu lor daitezke gehienez.

4.2.– Lehiaketa-fasea.

Lehiaketa-fasean, 80 puntu lor daitezke gehienez, baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia. Bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidegoei eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, esperientzia orokorraren eta espezifikoaren apartatuetan lortutako puntuazioaren batura izango da esperientziagatiko guztizko puntuazioa.

Esperientziagatik 62 puntu emango dira gehienez, baremo honen arabera:

a.1.– Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko kidego, eskala edo kategoria juridikoan edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,083 puntu emango dira, gehienez ere 22 puntu izan arte.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lanean emandako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.– Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 40 puntu izan arte:

a.2.1.– Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Eskala Juridikoko izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Zuzenbideko lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean, indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Eskala Juridikoari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,151 puntu emango dira, gehienez ere 40 puntu izan arte.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lanean emandako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

a.2.2.– Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,072 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 13 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Eskala Juridikoko izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Zuzenbideko lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean, indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Eskala Juridikoari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

ii) Horrez gain, 0,15 puntu emango dira lan egindako hilabeteko, gehienez 27 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

a.2.2 apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (12 puntu lor daitezke gehienez):

b.1.– 5 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua eta lizentzia), gehienez 10 puntu izan arte:

031201 Politika eta kudeaketa publikoa.

041303 Kudeaketa eta administrazio publikoa.

041302 Lan-harremanak eta giza baliabideak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

b.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Zuzenbideko lizentziadun karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 10 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 10 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 7 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

b.3.– 7 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoko lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 3 punturekin baloratuko dira, puntu bat ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

d) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

4.3.– Euskara jakitea.

Euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 12 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 26 puntu.

4. hizkuntza-eskakizuna: 36 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoan, eta ez zaie lehentasunik emango.

6.– Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatzea.

6.1.– Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko 2016ko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, deialdi honen ondorioetarako, egiaztatutzat joko dira, Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko edo A-2ko Zuzenbideko lizentziadunen aukerako bitarteko funtzionarioak, baldin eta lege hori indarrean jartzean (2016ko ekainaren 8an) bost urteko antzinatasuna bazuten.

6.2.– Hautagaiek, halaber, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea, hau da, proba espezifiko bat gaindituz. Proba horren ezaugarriak hurrengo apartatuetan zehaztuko dira.

6.3.– Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatzeko proba espezifikoan parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epean eskatu beharko dute parte-hartze hori. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda onartzen duen IVAPeko Zuzendaritzaren ebazpenean ezarriko da proba egiteko eguna.

6.4.– Abokatuen espezialitatea eskuratzeko probak ezaugarri hauek izango ditu:

a) 40 galderako galdera-sorta bat izango da, aukeran erantzun bat baino gehiago dituztenak, deialdi honen 8. oinarriko gai-zerrendari buruzkoak..

b) Proba «gai» edo «ez-gai» gisa kalifikatuko da eta, «gai» kalifikazioa lortzeko, beharrezkoa izango da oposizio-fasea gainditua izatea eta proba honetako 40 puntuetatik gutxienez 20 lortzea.

c) Erantzun oker bakoitzeko, erantzun zuzen baten balioaren heren bat kenduko da.

7.– Gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Europar Batasuna. Erakunde eta organismo nagusiak, haien osaera eta eskumenak: Kontseilua, Batzordea, Parlamentua, Justizia Auzitegia, Europako Kontuen Auzitegia, Eskualdeetako Lantaldea, Europako Inbertsio Bankua.

2.– Europar Batasunaren ordenamendu juridikoa eta haren iturriak. Barne-ordenamendu juridikoekin duen harremana.

3.– Espainiako Konstituzioa: Konstituzio-printzipioak. Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa. Konstituzioaren balio gorenak. Oinarrizko eskubideak eta eginbeharrak.

4.– Espainiako Konstituzioaren botereak: Botere legegilea, botere judiziala eta botere betearazlea.

5.– Estatuaren lurralde-antolamendua. Autonomia-erkidegoak. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko harremanak. Autonomia-erkidegoen antolamendu politikoa eta administratiboa.

6.– Foru-lurraldeen eskubide historikoak. Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria, Euskadiko Autonomia Estatutua eta Toki Araubidearen Oinarrien Legearen bigarren xedapen gehigarria.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutua. Egitura, oinarrizko edukiak eta funtsezko printzipioak. Lurraldea eta biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoaren elementu konstituzional gisa. Auzotasuna. «Euskal herritar» kondizio politikoa. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskumen esklusiboak, lege-garapenekoak eta betearaztekoak. Euskal Herriaren aginteak.

8.– Eusko Legebiltzarra: Osaera eta eginkizunak. Haren izaerari eta edukiari buruzko alderdi orokorrak. Arartekoa. Eusko Jaurlaritzaren jardueraren kontrol parlamentarioa.

9.– Eusko Jaurlaritza: egitura, osaera eta funtzionamendua. Jaurlaritzaren Legea. Lehendakaria: haren estatutua, izendapena, eskumenak, kargu-uztea eta ordezkapena. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lehendakariordeak, sailburuordeak eta goi-kargudunak.

10.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoak. Antolaketa eta eskumenak. EAEko erakunde komunen eta lurralde historikoetako foru-organoen arteko eskumen-banaketarekin loturiko alderdi orokorrak.

11.– Administrazio Publikoa eta Administrazio-zuzenbidea. Ordenamendu juridiko administratiboa. Administrazioa eta gobernua. Zuzenbide pribatuko administrazio-jarduera.

12.– Administrazio-zuzenbidearen iturriak. Legea. Erregelamendua. Eskuordetutako legedia.

13.– Estatuko eta Erkidegoko ordenamendu juridikoen arteko harremanak. Administrazio publikoen arteko harremanei buruzko printzipioak.

14.– Pertsona juridikoak. Administrazio publikoen nortasun juridikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa eta hura osatzen duten entitateen tipologia. Ente publikoen gaitasun juridikoa. Organo aholku-emaileak eta Administrazio independentea.

15.– Administrazio-antolamendua: administrazio-organoak. Kide anitzeko organoak. Antolamendu-printzipioak: Hierarkia eta eskumena. Eskuordetza, goragokoak eskumenak bereganatzea eta ordezkotza. Kudeaketa-gomendioa. Kontzentrazioa eta deskontzentrazioa. Zentralizazioa eta deszentralizazioa. Kide anitzeko organoen araubidea. Abstenitzea eta errekusatzea.

16.– Legezkotasun-printzipioa Administrazioaren jardunean. Ahalak legez esleitzea. Administrazio-jarduera arautua eta diskrezionala. Kontzeptu juridiko zehaztugabeak. Autotutoretzaren printzipioa. Nahitaezko betearazpena eta administrazio-hertsapena. Egitate-bidea.

17.– Administrazio-jarduna: administrazio-egintzen eta -xedapenen arteko bereizketa.

18.– Araugintza-teknika. Xedapen orokorrak egiteko gidalerroak eta prozedura.

19.– Administrazio-ekintza motak: sustapena, polizia administratiboa eta zerbitzu publikoa. Zerbitzu publikoak kudeatzeko moduak.

20.– Administrazio-egintzak: kontzeptua, elementuak eta motak. Administrazio-egintzen efikazia. Administrazio-isiltasuna. Administrazio-egintzen baliozkotasuna eta baliogabetasuna.

21.– Administrazio-prozedura erkidea: aplikazio-eremua. Printzipio orokorrak. Interesdunak. Prozedurako hizkuntza. Herritarren eskubideak. Zerbitzu publikoetan herritarrek sarbide elektro-

nikoa izateko tresnak. Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra.

22.– Administrazio-prozedura erkidea. Faseak: Prozeduraren hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.

23.– Administrazio-prozedura erkidea: administrazio-egintzak administrazio-bidetik berrikustea. Egintzak errebokatzea. Administrazio-errekurtsoak: kontzeptua eta motak.

24.– Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa: Izaera, hedadura eta mugak. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoak. Administrazioarekiko auzien prozesuko alderdiak: Gaitasuna, legitimazioa eta defentsa. Administrazioarekiko auzien prozesuaren alderdi nagusiak.

25.– Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoaren xedea: aurkaratu daitekeen jarduera. Prozedura arrunta eta prozedura laburtua: errekurtsoa jartzea, tramitatzea eta amaitzea. Kautelazko neurriak. Epaia. Ebazpen judizialen aurkako errekurtsoak. Epaiak betearaztea.

26.– Administrazio publikoen eta haien agintarien eta gainerako langileen erantzukizuna, zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren edo anormalaren ondorioz. Indarrean dagoen araubidea. Kalte-ordaina jasotzeko baldintzak. Erreklamazio-epeak eta -prozedura.

27.– Administrazio-ekintzak herritarrengan duen eragina edo Administrazioak esku hartzeko teknikak. Baimenak: kontzeptua eta motak. Zerbitzu publikoaren emakidak eta jabari publikoaren emakidak. Eskubideak mugatzea; nahitaezko prestazioak; eginbeharrak eta kargak; zehapenak.

28.– Sektore Publikoaren hitzarmenak. Definizioa eta motak. Betekizunak eta efikazia. Edukia. Izapideak. Ebazpena azkentzea eta ondorioak.

29.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko administrazio-ahala: zehapen-zuzenbidearen kontzeptua, esanahia eta printzipio orokorrak. Indarrean dagoen araubidea: zehatzeko ahala gauzatzeko arau orokor substantiboak.

30.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko administrazio-ahala: zehapen-alorreko xedapen orokorrak eta prozeduraren espezialitateak. Administrazio-neurri zehatzaileak.

31.– Administrazio publikoen laguntzen eta dirulaguntzen araubidea. Xedea eta helburua. Dirulaguntzak emateko printzipioak eta mugak. Dirulaguntzen eta laguntza publikoen onuradunak. Laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta prozedura. Dirulaguntzen justifikazioa. Dirulaguntzak eta laguntzak itzultzea.

32.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauak. Harmonizazio, koordinazio eta lankidetza fiskaleko ahalak. Zerga koordinaziorako organoa. Osaera eta eginkizunak.

33.– Ekonomia Ituna ordenamendu juridikoan: izaera eta ezaugarriak. Ekonomia Itunean Euskadiren eta Estatuaren arteko zerga-harremanak arautzea, arau eta printzipio orokorrak, harmonizazio fiskala eta Estatuarekiko lankidetza-printzipioa.

34.– Euskadiren eta Estatuaren arteko finantza-harremanak Ekonomia Itunean arautzea, printzipio orokorrak. Kupoa: kontzeptua eta kupoa zehazteko metodologia.

35.– Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta Lurralde Historikoetako foru-erakundeen arteko harreman ekonomiko-finantzarioak. Baliabideen banaketa EAEko erakundeen artean. Finantza Publikoen Euskal Kontseilua.

36.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak. Aurrekontu-printzipioak, edukia eta egitura. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren finantza-jarduera kontrolatzea: barne-kontrola eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrola.

37.– Kontrol ekonomikoa: xedea eta definizioa, barneko kontrol ekonomikoaren printzipioak.

38.– Kontrol kontu-hartzailea: definizioa eta integrazioa, helburuak, xedeak eta modalitateak.

39.– Kontrol ekonomiko-fiskala: irismena eta hedadura, fiskalizazio-txostenak.

40.– Kontrol ekonomiko-normatiboa: xedea eta eremua, helburua, edukia eta gauzatzeko modua.

41.– Administrazio-kontratazioa: Sektore Publikoko Kontratuen Legea: xedea eta helburua. Eremu subjektiboa: «Botere esleitzaile» kontzeptua. Eremu objektiboa: «Sektore Publikoko kontratu» kontzeptua. Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak, bitarteko propio pertsonifikatuei egindako enkarguak.

42.– Administrazio-kontratazioa: Kontratuaren xedea, zatitzeko debekua eta sortatan banatzea.

43.– Administrazio-kontratazioa. Kontratazio-espedientea eta kontratuaren baldintza-agiriak.

44.– Administrazio-kontratazioa. Kontratuaren esleipena: Arau orokorrak. Esleitzeko prozedura motak. Kontratu txikia.

45.– Administrazio-kontratazioa. Kontratua aldatzea. Errekurtso berezia: aurkaratu daitezkeen egintzak eta kontratuak. Errekurtso berezia: errekurtsoa jartzearen eta ebaztearen ondorioak.

8.– Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea egiaztatzeko gai-zerrenda espezifikoa.

1.– Estatua eta Botere Judiziala. Jurisdikzio-ahalmena: konstituzio-erregulazioa. Jurisdikzioaren ezaugarriak: independentzia, esklusibotasuna eta batasuna.

2.– Prozesua: izaera eta oinarria. Konstituzioan jasotako printzipio prozesalak. Prozesua eta prozedura. Benetako babes judizialerako eskubidea.

3.– Konstituzio Auzitegia: erregulazioa, antolaketa, funtzionamendua eta eskumenak.

4.– Botere Judizialaren Lege Organikoa. Jurisdikzioaren hedadura eta mugak. Planta eta lurralde-antolaketa judiziala. Jurisdikzio-gatazkak. Eskumen-arazoak.

5.– Jurisdikzio-organoen osaera. Ministerio Fiskala. Bulego judiziala eta Justizia Administrazioaren letraduaren eskumenak.

6.– Administrazioa eta justizia-auzitegiak. Administrazio publikoen espezialitate prozesalak.

7.– Prozesu zibila. Prozedura Zibilaren Legea: aurrekariak eta printzipio iradokitzaileak, egitura eta edukia. Eskumena: motak. Auzien banaketa.

8.– Alderdiak prozesu zibilean. Alderdi izateko gaitasuna eta gaitasun prozesala. Legitimazio prozesala. Alderdien ordezkaritza eta defentsa teknikoa.

9.– Alderdirik ez izatea. Auzi-ihesa prozedura zibilean. Alderdi-aniztasuna. Auzikidetza: motak eta araubide juridikoa. Prozesuko ondorengotza. Prozesuan esku-hartzea: motak. Eragindako edo nahitaezko esku-hartzea.

10.– Egitateak eta egintza prozesalak. Epaiketak prestatzeko egintzak; atariko eginbideak Prozedura Zibilaren Legean. Arazo intzidentalak: kasuak eta izapidetzeko prozedurak.

11.– Demanda: kontzeptua, betekizunak eta ondorioak. Uzia prozesuaren objektu gisa. Metatzea. Demandari erantzutea. Errekonbentzioa.

12.– Froga: kontzeptua. Xedea eta balorazioa. Froga-zama. Froga gauzatzea: xedapen orokorrak. Frogabideak.

13.– Ebazpen judizialak. Epaia: edukia eta motak. Epaiaren ondorio juridikoak: gauza epaitu formala eta gauza epaitu materiala. Prozesua amaitzeko beste modu batzuk: uko egitea, atzera egitea, amore ematea, transakzioa, uzia prozesutik kanpo betetzea, gertatze bidez objekturik ez izatea eta iraungitzea.

14.– Eztabaidak epaiketaz kanpo konpontzea. Adiskidetzea. Bitartekaritza. Arbitrajea.

15.– Prozesuaren ondorio ekonomikoak. Tasa judizialak eta errekurtsoak jartzeko gordailuak. Salbuespenak. Kostuak. Kostuak ezartzeko irizpideak. Kostuak tasatzea. Kostuak eta ente publikoak. Doako laguntza juridikoa.

16.– Ezagutza-prozesu motak. Epaiketa arrunta: ezaugarriak eta prozedura.

17.– Hitzezko epaiketa: ezaugarriak eta prozedura.

18.– Borondatezko jurisdikzioa. Araudi erregulatzailea. Borondatezko jurisdikzioko espedienteak.

19.– Nahitaezko betearazpena. Titulu betearazleak. Betearazpenaren arloko xedapen orokorrak. Atzerriko auzitegiek emandako epaien eraginkortasuna Espainian; Batasunaren eremuan betearazteari erreferentzia egitea.

20.– Diruzko betearazpena. Xedapen orokorrak. Ordainketa-errekerimendua. Ondasunak enbargatzea eta premiamendu-prozedura.

21.– Jabari-hirugarrengotzak eta eskubide hobeko hirugarrengotzak. Administrazio publikoak kondenatzen dituzten epaiak betearaztea. Diruzkoa ez den betearazpena.

22.– Prozesua ziurtatzea. Kautela-neurriak prozesu zibilean. Ebazpen judizialen behin-behineko betearazpena.

23.– Prozesu bereziak. Gaitasunari, seme-alabatasunari, ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesuak. Ondareen zatiketa judiziala.

24.– Prozesu bereziak: prozesu monitorioa eta kanbio-epaiketa.

25.– Prozesua aurkaratzea. Errekurtso motak. Berraztertze-errekurtsoa. Apelazio-errekurtsoa. Justizia Administrazioaren letraduen aurkako errekurtsoak.

26.– Kasazio-errekurtsoa: kontzeptua eta helburua. Eskumena, dagozkion ebazpenak eta arrazoiak. Izapideak eta epaia. Legearen intereserako errekurtsoa. Kexa-errekurtsoa.

27.– Prozesuko arau-haustearen ondoriozko aparteko errekurtsoa. Betekizunak; dagozkion ebazpenak eta arrazoiak. Izapideak. Epaiaren ondorioak. Prozedura Zibilaren Legean irmoak diren epaiak berrikustea. Demandatu auzi-iheslariak erabil ditzakeen errekurtsoak.

28.– Konkurtsoa deklaratzeko prozedura. Konkurtso-administrazioa. Prozedura izapidetzea. Konkurtso-intzidentea. Errekurtsoen araubidea.

29.– Zigor-arloko prozesua. Prozedura Kriminalaren Legea: edukia, printzipio gidariak eta hura osatzen duten xedapen nagusiak. Zigor-arloko prozesuaren xedea. Parte hartzen duten subjektuak. Biktimaren estatutu juridikoaren aipamen laburra.

30.– Zigor-arloko prozesua hasteko moduak. Sumarioa: sumario-eginbide nagusiak eta haien balioa. Prozesatze-autoa eta haren aurkako errekurtsoak. Kautela-neurriak, neurri pertsonalak eta neurri errealak.

31.– «Tarteko aldia» izenekoa. Largespena. Ahozko epaiketa hastea. Aurretiaz erabaki beharreko artikuluak. Kalifikazio-idazkia. Akusatuaren adostasuna. Ahozko epaiketa egitea.

32.– Prozedura laburtua. Aurretiazko eginbideak eta amaitzeko moduak. Ahozko judizioaren hasiera: eskaera eta ekitaldia. Epaia eta dagozkion errekurtsoak. Espezialitateak betearazpenean.

33.– Zinpekoen Epaimahaiaren aurreko prozedura. Konfiskazioak ukitutako hirugarrenen esku-hartzea eta konfiskazio autonomoaren prozedura.

34.– Delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedura. Dekretu bidezko prozesua. Delitu arinak epaitzeko prozedura. Zigor-arloko beste prozesu berezi batzuei erreferentzia egitea.

35.– Zigor arloko errekurtsoak. Kasazio-errekurtsoa. Motak. Arrazoiak. Prozedura.

36.– Zigor-arloko berrikuspena; zein kasutan den beharrezkoa. Legitimazioa. Prozedura. Zigor-arloko epaiak betearaztea.

37.– Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena Espainian: bilakaera historikoa. 29/1998 Legea, uztailaren 13koa: printzipio gidariak, egitura eta edukia. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren izaera, hedadura eta mugak. Barne hartzen dituen gaiak eta kanpoan utzitako gaiak.

38.– Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenako organoak. Bakoitzaren eskumeneko arau erabakigarriak.

39.– Alderdiak: administrazioen gaitasuna, legitimazioa, ordezkaritza eta defentsa. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren xedea: alderdien uziak. Alderdien uzien xedea: aurkaratu daitekeen administrazio-jarduera. Metatzea. Prozesuaren diru-zenbatekoa.

40.– Prozedura lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean (I): atariko eginbideak. Errekurtsoa jartzea. Demandatuak epatzea eta pertsonatzea. Demanda eta erantzuna.

41.– Prozedura lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean (II). Aurretiazko alegazioak. Froga. Bista eta ondorioak. Epaia: edukia eta eraginkortasunaren hedadura. Prozedura amaitzeko beste modu batzuk. Legezkontrakotasun-arazoa.

42.– Prozedura laburtua. Prozedura bereziak.

43.– Probidentzien eta autoen aurkako errekurtsoak. Apelazio-errekurtsoa. Zein ebazpenen aurka jar daitekeen. Prozedura. Epaiaren edukia eta ondorioak.

44.– Kasazio-errekurtsoa; kasazio-interesari buruzko aipamen berezia. Epaiak berrikustea.

45.– Kautela-neurriak. Epaiak betearaztea: epaiak etetea eta betearaztea; ondorioak hedatzea. Egintza prozesalen intzidenteak eta baliogabetasuna.

46.– Lan-arloko jurisdikzioa. Organo jurisdikzionalak. Eskumena. Prozesu arrunta: izapideak.

47.– Prozesuaren modalitateak. Kaleratzeak eta zehapenak. Ofiziozko prozedurak. Hitzarmen kolektiboak eta gatazka kolektiboak aurkaratzea.

48.– Lan-arloko jurisdikzioan aurkaratzeko bideak: erregutze- eta kasazio-errekurtsoak. Epaiak betearaztea.

49.– Konstituzio-prozesua. Prozedurari buruzko xedapen komunak. Postulazio prozesala. Konstituzio-prozesuak hasteko, garatzeko eta amaitzeko egintzei buruzko erregelak. Haien ondorioei buruzko arauak. Betearazpena.

50.– Konstituzio-kontrakotasuna deklaratzeko prozedurak. Xedapen orokorrak. Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsoa. Aipamen berezia Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoaren 33.2 artikuluari. Konstituzio-kontrakotasuneko arazoa. Epaien ondorioak.

51.– Konstituzio-babeserako errekurtsoa. Bidezkotasuna eta errekurtsoa jartzea. Izapideak eta ebazpena.

52.– Konstituzio-gatazkak. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko gatazkak, edo autonomia-erkidegoen artekoak. Toki-autonomia defendatzeko gatazkak. Autonomia-erkidegoen lege-indarrik gabeko xedapenak eta ebazpenak aurkaratzea. Autonomia-estatutuen proiektuen eta autonomia-estatutuak erreformatzeko proposamenen aurkako konstituzio-kontrakotasuneko aurretiazko errekurtsoa.

## XIV. ERANSKINA

Deialdiaren oinarri espezifikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesurako

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoko 198 plaza eskaintzen dira txanda irekian, honela banatuta:

a) Sarbide orokorraren modalitatea: 188

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 51

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 49

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 84

4. hizkuntza-eskakizunarekin 2022an: 4

b) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 10

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 3

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 2

4. hizkuntza-eskakizunarekin: 5

6.d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.3.– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 23,49 euro da.

2.4.– Oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuari dagokionez, hauek dira Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoan sartzeko tituluak:

Ikasketa-eremu hauetako gradu- edo lizentzia-tituluak: Zuzenbidea.

Ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak 2022ko maiatzaren 17ko 61/2022 Dekretuaren III. eranskinean adierazitakoak dira: 61/2022 Dekretua, maiatzaren 17koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionarioen lanpostuen zerrenda (maiatzaren 23ko EHAAn argitaratua).

3.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

3.1.– Deialdi honetako lanpostuetan, 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak lanpostua betetzeko betekizun izan daitezke. Euskara jakitea nahitaezko betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

3.2.– Horrez gain, deialdi honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek izan ditzakete:

– 600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, hiru espezialitateetan: segurtasuna, higienea eta ergonomia eta psikosoziologia.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da, ziurtagiriaren kopia arrunta erantsita.

– B gidabaimena.

Merezimenduak alegatzeko izapidean deklaratu behar da.

– Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitatea.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko 2016ko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, deialdi honen ondorioetarako, egiaztatutzat joko dira, Eusko Jaurlaritzako abokatuen espezialitateari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko edo A-2ko Zuzenbideko lizentziadunen aukerako bitarteko funtzionarioak, baldin eta lege hori indarrean jartzean (2016ko ekainaren 8an) bost urteko antzinatasuna bazuten.

Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoan enplegua finkatzeko prozesu berezian espezialitate hau egiaztatzeko proban parte hartu eta «gai» kalifikazioa lortzen duten hautagaiei betekizun hau egiaztatutzat joko zaie hautaketa-prozesu honetarako ere.

Eskainitako lanpostuen zerrendan –oinarri orokorretako 12.2 apartatuan egiten zaie erreferentzia– hauek zehaztuko dira: lanpostu bakoitzaren izena, saila edo organismoa, zentro organikoa, lanpostua kokatuta dagoen herria, destino-osagarriaren eta berariazko osagarriaren mailak, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data, eta lanpostua betetzeko bete behar diren betekizun espezifikoak.

4.– Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da.

100 puntu lor daitezke gehienez (alde batera utzita euskara jakiteagatik merezimendu gisa emango den balorazioa), baremo honen arabera lortutako puntuak batuz:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen dira edozein administrazio publikotan –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak barne–, organismo autonomotan edo zuzenbide pribatuko ente publikotan A1 azpitaldeko kidego, eskala edo kategoria juridikoan edo horiei atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak, funtzionario-harremanekoak nahiz lan-kontratuko harremanekoak izan.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,056 puntu emango dira, gehienez ere 15 puntu izan arte.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lanean emandako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berariaz baloratuko da esperientzia espezifikoa, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri.

Hautagai bakoitzari bi balorazio desberdin esleituko zaizkio alegatu duen esperientzia espezifikoari dagokionez. Lehenengo balorazioa destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuak esleitzeko aplikatuko da, eta bigarrena destino-osagarriaren 27. eta 28. mailako lanpostuak esleitzeko.

Bi kasuetan, jarraian adierazten diren arauak aplikatuta baloratuko da esperientzia espezifikoa, gehienez 45 puntu izan arte:

b.1.– Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 23. eta 25. mailetako lanpostuetarako. Zerbitzu hauek baloratuko dira:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Eskala Juridikoko izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Zuzenbideko lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean, indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Eskala Juridikoari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

Esperientzia hori baloratzeko, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,170 puntu emango dira, gehienez ere 45 puntu izan arte.

Zenbaketa egiteko, azken 25 urteetan lanean emandako aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b.2.– Esperientzia espezifikoaren balorazioa, destino-osagarriaren 27. eta 28. mailetako lanpostuetarako. Ondorengo apartatuetako arauak aplikatu osteko puntuak batuz zehaztuko da.

i) 0,084 puntu lan egindako hilabeteko, gehienez 15 puntu izan arte, zerbitzu hauengatik:

– EAEko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Eskala Juridikoko izendapenarekin emandako zerbitzuak.

– Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Zuzenbideko lizentziaren aukerako izendapenarekin emandako zerbitzuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko kidego eta eskalei buruzko 2021eko azaroaren 11ko 7/2021 Legean jasotako korrespondentzia-taularekin bat etorriz.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko lan-kontratudunen kolektiboko hitzarmenaren lan-harremanarekin eskala horri asimilatuta emandako zerbitzuak.

– Deialdiaren unean, indarrean dagoen lanpostu-zerrendan Fakultatiboen Goi-mailako Eskala Juridikoari atxikitako lanpostuetan emandako zerbitzuak.

ii) Horrez gain, 0,166 puntu emango dira lan egindako hilabeteko, gehienez 30 puntu izan arte, aurreko (i) apartatuko zerbitzuengatik, destino-osagarriaren 27., 28. eta 29. mailak dituzten lanpostuetan eman badira.

b.2 apartatu honetako zenbaketa egiteko, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

c) Tituluak izatea, probak gainditu izana karrerako funtzionarioa edo langile lan-kontratudun finkoa izateko prozeduretan, eta lan-poltsetan egotea.

Merezimendu hauek baloratuko dira (30 puntu lor daitezke gehienez):

c.1.– 10 puntu emango dira ikasketa-eremu hauetako titulu bakoitzeko (gradua eta lizentzia), gehienez 20 puntu izan arte:

031201 Politika eta kudeaketa publikoa.

041303 Kudeaketa eta administrazio publikoa.

041302 Lan-harremanak eta giza baliabideak.

7. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan argitaratuko dira ikasketa-eremu bakoitzean sartzen diren tituluak.

Titulu bakarra baloratuko da ikasketa-eremu bakoitzeko. Era berean, sartzeko betekizun gisa alegatutako tituluaren ikasketa-eremu berekoak diren tituluak ere ez dira baloratuko.

c.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Zuzenbideko lizentziadun karrerako funtzionario izateko 2000. urtetik aurrera –urte hori barne– egin diren hautaprobak gainditzeagatik, gehienez 24 puntu emango dira:

– Oposizio-fasea gaindituta izatea: 24 puntu.

– Oposizio-faseko lehen ariketa gaindituta izatea: 18 puntu (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

c.3.– 18 puntu emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoko lan-poltsetan egoteagatik (hori da azpiapartatu honetan lor daitekeen gehieneko puntuazioa).

d) Informatika-ezagutzak.

Informatika-ezagutzak gehienez 5 punturekin baloratuko dira, 2 puntu ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.

– Internet oinarrizkoa.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.

– Microsoft Outlook XP/2003/2010.

– Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.

– Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.

– Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.

– Internet aurreratua.

Oinarri orokorretan adierazi bezala, moduluak gainditu izana IT Txartelaren egiaztatze-sistemaren bidez egiaztatu behar da. Modulu beraren bertsio bat baino gehiago egiaztatzen bada, bakarra baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua dutela egiaztatzen dutenei egiaztatutzat emango zaie oinarrizko maila.

e) Hizkuntzak.

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailetako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:

– C1 maila edo handiagoa: 2,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.

– B1 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

f) Euskara jakitea.

Hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako euskara jakitea betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da. Baremo honen arabera baloratuko da euskara jakitea:

1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.

2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.

3. hizkuntza-eskakizuna: 13 puntu.

4. hizkuntza-eskakizuna: 18 puntu.

5.– Lehentasunaren klausula aplikatzea.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkatuta Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Eskala Juridikoan, eta ez zaie lehentasunik emango.

XV. ERANSKINA

Deialdiaren oinarri espezifikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazio Kudeaketako Kidegoko Administrazio Kudeaketako Eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezirako

1.– Deialdiko plazak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazio Kudeaketako Kidegoko Administrazio Kudeaketako Eskalako 47 plaza eskaintzen dira, honela banatuta:

a) Txanda irekia: 27

a.1.– Sarbide orokorraren modalitatea: 26

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 4

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 22

a.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

b) Barne-sustapeneko txanda: 20

b.1.– Sarbide orokorraren modalitatea: 19

Hizkuntza-eskakizunik gabe: 3

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 16

b.2.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatea: 1

3. hizkuntza-eskakizunarekin: 1

6.d) oinarri orokorrean xedatutakoarekin bat etorriz eta bertan jasotako arauei jarraituz, deialdi honetara bilduko dira 27. eta 28. destino-osagarriaren mailetako lanpostuak betetzeko lehiaketa behin betiko esleitu ondoren hutsik geratuko diren lanpostuak. Horiek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dira, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Parte hartzeko betekizunak.

2.1.– Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 3.3 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

2.2.– – Barne-sustapeneko txandan parte hartu nahi dutenek, horiez gain, oinarri orokorretako 22. oinarrian adierazitakoak ere bete behar dituzte.

2.3.– Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako modalitatean parte hartu nahi dutenek, betekizun horiez gain, oinarri orokorren 4.1 apartatuan adierazitakoa ere bete behar dute.

2.4.– Administrazio Kudeaketako Kidegorako langileak hautatzeko deialdietan izena emateko tasa 19,58 euro da.

